

txoritxoari mokoka

Amagoia Iban

Marcosekin elkarriketa?

Astearte gau lasaia. Amaiera ikusi gabe ohera joateak penarik ematen ez dizun pelikula horietako bat aukeran. Hizki batzuk bat-batean pantailaren behealdean, eskuinetik ezkerredera. «Atentatu berri bat ote?», lehen burutapena. Ez, bada. «Gaur gauean, 00:00etan, elkarriketa Marcos komandanteordearekin». Ainhoa Larretxea kazetaria martxa zapatistarekin dabilela jakinda, elkarriketa preziatua lortu duela pentsatu behar. Akabo logurea. Filmaren amaiera arte itxarotea besterik ez koman-

EGUNKARIA
Marcos komandanteordea.

danteordearen elkarriketa ikusteko. Amaitu baino lehen, bideo zinta huts bat aurkitu eta bideoan sartu. Dena prest. Komunera joan. Itzuleran, pantailan dira pelikula-ren kredituak. Elkarriketaren unea heldu da. Iragarki gutxi batzuk, eta lerdo aurpegia jartzeko unea. Marcos komandanteordeari egindako elkarriketa famatua, *La rebelión zapatista: la verdadera leyenda del subcomandante Marcos* dokumentala bilakatua. *Mundo.Hoy* programaren ohiko errepikapena, alegia. Marcosen 1994ko adierazpenak, iraultza zapatistaren irudiekin tartekatua. Bideoa eta telebista erretxinduta itzali, eta ohera. Marcosek «gajoa!» nola deitzen dizun ametsetan entzutera.

LABURAEAN

ETB1 'BERTATIK BERTARA'

Eguen Banda talde berriari buruz ariko dira gaurko saioan

Hainbat gai jorratuko dituzte gaur *Bertatik bertara* magazinako lehenengo edizioan (14:10ean). Batetik, Leire Zorrozu kazetariak Eguen Banda talde berriari buruzko erreportaia bat egingo du. *Eguenetako kantak* izenburupean kaleratu duten diskoan, euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz eginiko kantak dau-de. Eta taldeko kideak Jesus Belmonte, Fran Lasuen eta David Pessingham dira. Bestalde, Nerea Iriartek Juan Kruz Mendizabal elkarriketatuko du.

LA2 'PARÁISOS EN CENTROAMERICA'

Ertamerikari buruzko dokumental sail bat estreinatuko dute apirilaren 1ean

Ertamerikako sei herrialdeei buruzko erreportaiak prestatu ditu Ina Rodríguez kazetariak. *Paraísos en Centroamérica* izenburua izango du saioak, eta apirilaren 1ean estreinatuko dute. Lehenengo Panamari buruzkoa izango da. Eta hurrengo igandeetan Honduras, Costa Rica, Nikaragua, Guatemala eta El Salvadorreko irudi ederrak ikusteko aukera izango da La2 katean.

T5 'ABOGADOS'

Abokatuei buruzko telesail bat estreinatuko dute aurki

BocaBoca ekoiztetxea telesail bat prestatzen ari da non abokatuak izango diren protagonistak. Jesus Font da zuzendaria, eta apirilaren 1ean estreinatzea espero dute. Aktore garrantzitsuenak Javier Albala, Luisa San Jose eta Cristina Brondo izango dira. Astero gonbidatu berezi bat izango dute (lehenengo Angela Molina).

IRATI JIMENEZ 'HAU KOMERIA' SAIOKO AURKEZLEA



«Gaurkotasunera lotuago goaz aurten»

Arte eszenikoen inguruko Euskal Telebistako saio bakarraren aurkezlea dugu Irati Jimenez kazetari gaztea.

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Hirugarren denboraldia du ETBn antzerkia eta dantzari buruzko *Hau Komeria* saioak. Ostegun gauetan ematen dute kultur magazina ETB1en, eta gaztelaniaz larunbata eguerdian ematen dute ETB2n. Lehenengo bi denboraldietan Asier

Hormaza izan zen aurkezlea, eta gaur gauean elkarriketa egingo diote saio berean. Denboraldi honetako aurkezle Irati Jimenezekin hitz egin dugu saioaren inguruan.

■ Zure lehenengo esperientzia al da aurkezle lanetan?

Bai. 23 urte besterik ez ditut. Karrerako azkeneko urtean hasi

'HAU KOMERIA'-REN ORDUTEGIA

«Ez dugu uste ordu egokienean ematen dutenik; gaztelaniazkoa jende gehiagok ikusten du»

nintzen erredakzio laguntzaile. Iaz jarraitu nuen erredaktore, eta aurrean aurkeztearena egitea egokitu zait.

■ Antzerkia eta dantza maite al dituzu?

Bai, lehen ikusle eta zaletu gisara. Baina ez dut aktore bokaziorik edo halakorik.

■ Nolako lan talde eta funtzionamendua duzue?

Talde txikia gara. Zuzendaria Fran Lasuen da, erredaktoreak Edorta Jimenez, David Perez eta hiruok gara. Eta gero ekoizle eta errealizadore bat daude. Aspetetako aurrerapenarekin prestatzen ditugu gaiak, erreportaiak eta elkarriketak. Gero errealizadoreak montatzen du azkeneko egunetan. Iaz baino lotuago goaz gaurkotasunarekin. Horrekin pozik gaude.

■ Duela aste batzuk Euskal Herriko hiriburuetako antzoki zaharren inguruko erreportaiak egiten hasi zineten. Nola sortu zen ideia?

Lehen genuen atal bat *Aspaldian* izenekoa. Bertan Euskal Herriko talde garrantzitsuenen historia kontatu genuen. Horren ostean euskal antzerkiaren historia labor bat egin genuen. Ondoren, atala desagertu egin zen eta penarekin gelditu ginen. Orduan bururatu zitzaigun *Kaleidoskopioa* atalan antzokien historia egitea. Bi astean behin egiten dugu: Arriaga eta Victoria Eugeniarena egin dugu, eta gaur Gasteizko Principal Antzokiarena emango dugu. Baionako Antzokiarena, Donostiako Principalena eta Iruñeko Gayerrena izango dira hurrengoak.

■ ETBn soilik zuen saioa dago antzerkia jorratzen duena. Ezin al da gehiago egin?

Nik uste dut asteburuetako albistegietan sartzen dituztela antzerkiarekin zerikusia duten albisteak. Baina nire iritziz kultur astekari bat egon beharko luke.

GAURKO SAIOA

Asier Hormazari elkarriketa

Gaur gaueko saioan (23:40ean) Asier Hormaza aktorearekin ariko dira solasean. Bestalde, ezohiko ikuskizun baten inguruko erreportaia emango dute: *Stomp*. Lan horretan, perkusioa, erritmoa, antzerkia, musika eta dantza nahasten dira, eta Baionako Antzokian eskaini dute duela gutxi. Beste erreportaia Bilboko Fundizioan estreinatu berri den *¿Por qué no habéis venido antes?* dantza ikuskizunari buruzkoa izango da. Eta kontrazala Eguen Bandari eskainiko diote.

Ez soilik arte eszenikoei buruzkoa. Kultur saio orokorrako bat egitea ona litzateke.

■ ETB1en oso berandu ematen dute 'Hau Komeria'.

Bai, hori da ETBk jarri digun ordua. Ez dugu uste ordurik egokiarena denik. Saiatu gara aldatzen, baina badirudi beste kultur saioak ere ordu horietan jartzen dituztela. Gaztelaniazkoa larunbata eguerdian ematen dute, eta guk uste baino jende gehiagok ikusten du.

■ Zein da saioan eginiko lanetan gehien gustatu zaizuna?

Euskal antzerki taldeen historia errepasatzen zuten erreportaiak oso oroitzen onak dira. Gainera, asko ikasi nuen. Antzerkiaren inguruko ogibideak ere interesgarriak dira.

■ Laster 100. saiora iritsiko zarete, ezta?

Bai, maiatzaren 15 izango da. Max arte eszenikoen sariaren banaketarekin bat egingo du eta zerbait berezia prestatuko dugu.